

## **2025EKO OTSAILAREN 27AN TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**MODUA:** Presentzialki

**TOKIA:** Batzar aretoa

**EGUNA:** Hogeita zazpia

**HILABETEA:** Otsaila

**URTEA:** Bi mila eta hogeita bost.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko bostak eta erdi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

**BILDUA:** Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

**EZ DA ETORRI:** Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu)

**IDAZKARIA:** ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

**1.- AURREKO AKTAK.** 2025-01-30 aktaren onespena.

Aipatutako aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako zuzenketarik gabe.

**2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENA:**

a.- **KONTRATAZIOA:**

- **OBRAK KONTRATATZEA.** PROIEKTUA ETA PLEGU ADMINISTRATIBOA ONARTZEA MUSIKA ESKOLAKO BIRGAITZE-OBRAK LIZITATZEKO. 2025PROB0002

2025-02-20ko Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako obrak kontratatzeke proiektua eta baldintza administratiboa onartzea eta lizitazioa, deialdia publikoaren bidez egitea Euskadiko kontrataziorako plataforman argitaratuz.

1.- *Prozedura: irekia publikitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*

2.- *Izapidetzea: arrunta, ez harmonizatua*

3.- *Lizitazio prezioa: 309.459,50 €, BEZ gabe.*

4.- *Egikaritze epea: 14 ASTE (obrak 2025ko ekainaren 2an hasi eta 2025ko irailaren 8 baino lehen amaitu beharko dira).*

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzarioa: Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango*

da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 464.189,25 € gutxienez.

6.- Kaudimen teknikoa: Obra burua (Arkitektoa, arkitekto teknikoa, eraikuntzako ingeniari teknikoa edo goi mailako ingeniaria, %40etik gorako dedikazioarekin), obraren arduraduna (Titulazio jakinik gabea. %100eko dedikazioa).

7.- Klasifikazioa: C taldea, 4 azpitaldea, 2 Kategoria (ez da beharrezkoa baina aurkeztu ezker kaudimen ekonomikoa eta teknikoa justifikatuta geratuko da).

8.- Aurkezteko epea eta lekua: 26 eguneko kontrataziorako plataforman iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Lizitazio elektronikoa.

9.- Adjudikazio irizpideak:

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (40 puntu)

Memoria teknikoa: 3 azpirizpide (40 puntu)

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (60 puntu)

- Eskaintza ekonomikoa. 50 puntu.

- Pleguan ezarritako berme epea handiagoa proposatzea: 10 puntu.

Prezioarekiko eskaintza anormalki baxutzat joko dira, 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, 85. artikuluan adierazitakoak.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

12.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:

Kontratua egikaritzeko langile berriak kontratatzea beharrezkoa balitz eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen ordezkari ez orekatua balu langileen artean, kontratua egikaritzeko eta egikaritze epe osoan zehar, gutxienez ere, emakume bat kontratatu beharko du langile berri moduan edo, gutxienez ere, aldi baterako kontratatutako emakume bati kontratu mugagabea egin beharko dio. Langile multzoa ez orekatua dela ulertuko da emakumeak guztizko langileen %40ra iristen ez direnean.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), adierazi du ez daudela proposamenarekin ados beraien ustetan Musika Eskolak espazio propio bat behar duelako. Horren ondorioz, zerbitzu hori beste udal eraikin batean eskaini beharko litzateke eta udaletxeko eraikina, funtzio instituzional eta administratiboetarako erabili. Aurkako jarrera azaldu du.

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE), esan du abstenitu egingo dela, egungo espazioa ez delako egokia eta legeak eskatzen dituen baldintzak ezin direlako bete.

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Guk proposamena berretsi egiten dugu. Beste kokapen batzuk aztertu ditugu, hala nola, Aranealde, Urbietan eta baina Musika Eskolako Zuzendaritzarekin hitz egin ondoren herriko erdigunean egoteari garrantzia eman diogu, Legeak ezartzen dituen baldintzak aintzakotzat hartuz."

Adur Ugartemendia jaunak (EAJ-PNV), azaldu du oraingo lehenengo fasea gauzatuko dela eta horren ondoren beste fase bat egikaritzea geratuko dela.

Bozketa eginda, emaitza ondorengo izan da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin onartu da proposamena.

- HORNIDURA ETA INSTALAZIOA KONTRATATZEA. PROZEDURA ARMONIZATU IREKI ARRUNT BIDEZ, BEASAINGO IGARTZA JAUREGIKO BARNE ARGIZTAPENA ETA IGARTZA MONUMENTU MULTZOKO KANPO ARGITZAPENA GAUZATZEKO HORNIDURA ETA INSTALAKUNTZA LANAK KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN PLEGUAK ONARTZEA. EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO BERRESKURATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN BARRUAN – NEXT GENERATIONEU. 2025PROB0001

2025-02-20ko Lurralde Batzordeko proposamenaren berri eman da: Aipatutako hornidura kontratatzeako proiektua eta baldintza administratiboa onartzea eta lizitazioa, deialdia publikoaren bidez egitea Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko kontrataziorako plataforman iragarkia argitaratuz:

- 1.- *Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
- 2.- *Izapidetzea: arrunta eta harmonizatua*
- 3.- *Lizitazio prezioa: 393.248,20 €, BEZ gabe (hornidura: 236.248,20 € eta instalakuntza: 94.164,44 €).*
- 4.- *Egikaritze epea: 5 hilabete kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (hasierako data: 2025-06-30).*
- 5.- *Kaudimen ekonomiko, finantzariora: Urteko negozio-bolumena, kontratuaren esparruari dagokiona. Azken hiru urteetako ekitaldi oneneko negozio-bolumena izango da; kontuan hartuta enpresaburuak enpresa noiz sortu duen edo jarduerak noiz hasi dituen eta eskaintza noiz aurkeztu duen. Zenbatekoa: 589.872,31€ gutxienez.*
- 6.- *Kaudimen teknikoa: Azken hiru urteetan kontratuaren helburu diren antzeko hornidurak burutu izana. Tituluak: Kontratuaren arduraduna (Ingeniaritza, ingeniaritza teknikoa edo ingeniaritzan gradua edo antzeko titulua izatea) instalatzailea (erdi-mailako prestakuntza-zikloa edo LH1, goi-mailako prestakuntza-zikloa edo LH2, adar elektrikoan edo elektronikoan, edo ingeniaritzako graduak.*
- 8.- *Aurkezteko epea eta lekua: 30 egun natural, lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita. Lizitazio elektronikoa.*
- 9.- *Adjudikazio irizpideak:*

Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak (30 puntu)

Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (70 puntu)

- Eskaintza ekonomikoa. 60 puntu.

- Ekipamendu eta instalazioen berme-epea handitzea: 10 puntu.

Prezioarekiko eskaintza anormalki baxutzat joko da onartutako eskaintzen batez bestekoa baino 20 puntu txikiagoa den baja duena. Eskaintza ekonomikoaren bideraezintasuna zehazteko parametro objektibotzat hartuko dira soldata-

*betebeharrei, gizarte-segurantzako kotizazioei, absentismoari, prestakuntzari, mediku-azterketei eta abarri erantzuteko beharrezkoak diren kostuak estaltzera iristen ez direnak.*

*10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

*11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*

*12.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak: Sozialak eta ingurugirokoak (ikus klausula berezien 11. eta 12. atalak).*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- KONTRATUAREN LAGAPENA: BEASINGO HIRI ANTOLAKETA OROKORRA IDAZTEKO KONTRATUAREN LAGAPENARI BURUZ 2025-01-30EAN GOBERNU BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK. 2017IDBO0020

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko lehendakariaren erabaki-proposamena:

#### **“AURREKARIAK**

**I.- SABAI ARKITEKTOAK, S.L.P.** kontratistak eskatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025-01-30ean egindako bilkuran, “kontratua lagatzeko” baimena ematea erabaki zuen, Agustín Errea Oiarzabal arkitektoaren alde, SPKLTBren 226. artikulua horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen direlako

**II.- Baimena, Agustín Errea Oiarzabal jaunak, 15 eguneko epean erabakiaren hirugarren xedapen-zatiko 1.etik 4.era bitarteko ataletan adierazitako agiriak aurkeztearen baldintzapena eman zen.**

**III.- Erabakia 2025-02-04an jakinarazi zen, eta 2025-02-18an Agustín Errea Oiarzabal jaunak alegazio-idazkia aurkeztu zuen, 1., 3. eta 4. ataletako dokumentazioa aurkeztearekin ados zegoela adieraziz, baina ez 2. atalean eskatutakoarekin, bere eskubide eta interesen aurkakoa zelako eta zuzenbidearekin bat ez zetorrelako, aplikatu beharreko araudian babesik ez zuelako eta proportzionaltasun-printzipioa errespetatzen ez zuelako.**

*Zehazki, ez dago ados eskatutako kaudimen ekonomiko eta profesionalarekin.*

*Kontratuaren xedearen eta zenbatekoaren eta eskatutako kaudimen-baldintzen artean egon behar duen proportzionaltasun-harremanari erreferentzia egiten dioten Kontratuaren inguruko Administrazio Auzitegiaren ebazpenetan oinarritzen du bere argudioa.*

*Ildo horretan, SPKLTBren 226. artikulua aipatzen duen "eska daitekeen kaudimena" (hizpide dugun kontratuari aplikatzekoa) "kontratua gauzatzeko fasearen araberkoa" izan behar dela uste du, indarrean dagoen SPKLren 214,2 artikuluan adierazten den bezala.*

*Interpretatu du SPKLTBren 226. artikuluan azken baldintza hori dagoela eta horren ondorioz, kontratua gauzatzeko 7 faseetatik 5 gauzatu direnez, lagapen-hartzaileari "eska dakiokkeen kaudimena" hura gauzatzeko geratzen denaren proportzionala izan behar duela.*

*Proposatu du:*

- Arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguru (kaudimen ekonomikoa) 100.000,00 €koa izatea.

- Kaudimen profesionala, lagapen-hartzaile arkitektoaz gain, honako hauetara mugatzea: Lege-aholkularia, zuzenbideko lizentziaduna eta ingurumen-teknikaria edo enpresa profesional espezializatu.

Egiaztatzeko, kontratuari atxikitako profesionalak edo enpresek emandako erantzukizunpeko adierazpena edo ziurtagiria nahikoa izatea.

Gainera, ondorengoa eskatu du: Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epaia eteteko, alegazioak ebazteko erabakia hartu arte.

**IV.-** Idazkariak 2025-01-25ean honekin batera doan txostena eman du aurkeztutako alegazioei erantzuna emanez eta ondorio gisa adierazi du:

**“Lehenengoa.** Hartutako erabakia zuzenbidearen arabera da, izan ere, aplikatu beharreko legediaren (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duena: 226. artikulua), arabera hartu da. Lagapen-hartzaileak erabakian adierazitako giza baliabideak izateak ez dakar ondorengo betebeharrak dakartzaten kontratuak formalizatzea, horiek erabiltzen ez badira. Erabakiak, “konpromisoa” aipatzen du.

**Bigarrena.** Aurrekoak ez du eragozten lanbide-kaudimenari dagokionez eskatzen dena aintzakotzat hartzea, hau da, lagapen-hartzaileari onartzea lege-aholkulari bat, zuzenbidean lizentziadun bat eta ingurumen-teknikari bat edo enpresa profesional espezializatu bat dituela egiaztatzea, ez baita beharrezkoa administrazio-agirian eta inpugnatutako erabakian eskatzen diren gainerako profesionalak izatea kontratua 6. eta 7. Faseetan gauzatzeko.

Hala ere, lagapena baimentzean adierazitako moduan egiaztatu behar da, kontratista hautatzeko kontuan hartutako preskripzioak ez urratzeko; horrek kontratazioaren oinarriko printzipioak urratuko lituzke, eta lagapen-prozedura lege-iruzurrean erabiltzea ekarriko luke.

**Hirugarrena.** Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguruari dagokionez (kaudimen ekonomikoa), lizitazioan parte hartzeko eskatutako zenbateko berdina da kontratuaren lagapenak ez duelako esan nahi hasierako kontratua amaitzen denik eta beste berri bat sortzen denik, lagapen-hartzaileak enpresa lagatzailearen betebeharrak eta eskubideak bere gain hartzea baizik.

Horregatik guztiagatik ez da ulertu behar kontratuaren zenbatekoa egikaritu eta ordaintzeko geratzen dena denik.

Alde horretatik, uste dut erabakitakoa zuzena dela.”

Idazkariak esan du bere iritziz 2025-01-30ean Gobernu Batzordeak hartutako erabakia zuzena dela txostenaren ondorioetan aipatzen denagatik.

Jarraian ondorengoa azaldu du: “2020ko azaroaren 18ko Auzitegi Nazionalaren Epaiaren arabera (Administrazioarekiko Auzietako Sala. 5. atala. epaia. 57/2020 errekurtsua), “Lanbide-kaudimenaren murrizketa objektiboa da, neurtu/jakin daiteke, Egitasmo Orokorra idazteko fase bakoitzean zein profesional behar diren eta alde horretatik lagapen-hartzaileak eskatutakoa onartzeko ez legoke arazorik.

Aldiz, kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko eskatu den “arrisku profesionalengatiko kalte-ordainetarako aseguruaren” proportzionaltasuna kontratuaren xedeari, konplexutasun teknikoari eta dimentsio ekonomikoari buruzkoa da, ez kontratuaren balio zenbatetsiaren zenbatekoaren gaineko ehuneko bati buruzkoa, eta, gainera, ez dago arauz aurrez zehaztuta gehieneko mugari dagokionez (Auzitegi Nazionala. Administrazioarekiko Auzietako Sala. 5. atala. 2020ko azaroaren 18ko epaia. 57/2020 errekurtsua).

Erantzukizun zibileko aseguruaren xedea, profesionalak kontratutik kanpoko hirugarren pertsonekin izan ditzaken harremanetan finantza-nahikotasuna ziurtatzea da.

Aitzitik, kontratua behar bezala betetzeko bermea eta gaizki gauzatzearen ondoriozko kalte-galeren bermea, behin betiko bermearen eskakizunaren bidez estalita daude.

Tokiko Gobernu Batzordeak, idazkariaren txostena ezagututa, Egitasmo Orokorra idazteko kontratua eta horren ondoriozko betebeharrak betetzean interes publikoa bermatze aldera ondorengo erabakia hartu du:

**Lehenik**. Lagapen-hartzaileak aurkeztutako alegazioa, kaudimen ekonomikoaren betekizunei buruz onartzea eta, neurri batean, lanbide-kaudimenari buruzkoa, hau da:

- **Kaudimen ekonomikoa**: Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainetarako 100.000,00 euroko aseguruua duela egiaztatzen duen agiria. Lagapen-hartzailearen aldeko poliza aurkeztu beharko da.
- **Lanbide-kaudimena**: Honako giza baliabide hauek dituela egiaztatzen duen dokumentazioa:
  - Lege-aholkulari bat, zuzenbidean lizentziatua.
  - Ingurumen-teknikari bat edo enpresa profesional espezializatu bat.

Kontratuari atxikitako profesionalek edo enpresek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, giza baliabide horiek kontratua gauzatzeko benetan atxikita daudela egiaztatzen duena eta baita ere profesional horiek bateraezintasun-erregimen bat onartzen dutela Beasaingo Udal Administrazioa ez den beste erakunde batzuek egindako lan partikularretan edo enkarguetan parte hartzeko, plangintza idatzi bitartean Beasaingo udalerrian jarduketak egiteko, plangintza behin betiko onartu eta bi urtera arte.

**Bigarren**. Erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta 15 eguneko epean, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Aurreko puntuan adierazitako dokumentazioa (kaudimen ekonomikoa eta profesionala).
- 2.- 2025-01-30eko erabakiaren hirugarren xedapen-zatiko 1., 3., 4. eta 2. ataletan adierazitakoa (zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea).

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

b.- **OBRA-ZIURTAGIRIA**: BEASAIN - ORMAIZTEGI BIDEGORRIAN LED KALEARGIAK HORNITU ETA MUNTATZEKO KONTRATUAREN LIKIDAZIOA. 2024PROB0001

Lurralde batzordeak proposatuta aho batez onartu da "***Beasain - Ormaiztegi bidegorrian led kaleargiak hornitzea eta muntatzea***" buruzko", obra-likidazioa 85.452,09 €koa (BEZ barne).

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera seiak hiru gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.